

BASES DEL PROGRAMA BECAS «BASQUE GLOBAL INDUSTRY»

I. – Finalidad.

El programa de Becas «Basque Global Industry» 2026 se dirige a potenciar la movilidad transnacional de la juventud de la Comunidad Autónoma del País Vasco para realizar actividades y proyectos relacionados con su perfil académico y profesional en el extranjero con un plan de formación práctica previamente planificado.

A tal fin, se instrumentan desde SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, en colaboración con Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), las oportunas ayudas económicas a entidades seleccionadas para la gestión del dicho programa de acuerdo con este Anexo I y las Bases del Programa.

II. – Contenido de las Becas «Basque Global Industry».

1. – Las becas que concedan las Entidades Beneficiarias del programa comprenderán:

a) Un curso de formación obligatorio para todas las personas becadas, de 40 a 60 horas de duración, cuyo contenido mínimo se especifica en las bases de esta convocatoria y, que proporcionará la entidad responsable de las becas, beneficiaria del programa de ayudas, a realizar con anterioridad al inicio de las prácticas.

b) Una estancia práctica en el extranjero, de un mínimo de 6 meses y máximo de 12 meses en una empresa u organismo colaborador. Durante la práctica los becarios y becarias desarrollarán sus funciones en modalidad presencial obligatoria, debiendo estar en todo momento acompañados presencialmente por personal de la empresa.

2. – La condición de persona becaria se adquirirá, con la emisión del documento de concesión de la beca por la entidad responsable correspondiente.

III. – Beneficios y límites comprendidos en las Becas «Basque Global Industry».

1. – El número total de becas ofrecido por Fundación Noviasalcedo será de 57.

2. – Las personas becadas en el marco del programa obtendrán los siguientes beneficios:

a) Un curso gratuito de formación, de 40 a 60 horas de duración, previo al inicio de las prácticas, organizado y sufragado por la entidad responsable de las becas, de obligatoria participación para la persona becada so pena de pérdida de la beca concedida en caso contrario.

b) Una dotación económica mensual bruta de 1.785 euros, para cubrir los gastos de desplazamiento al país de destino, de manutención, alojamiento, así como los correspondientes a visados, permisos y vacunas si fuesen necesarios. De la citada dotación bruta y de sus correspondientes abonos, se detraerán, en su caso, las oportunas retenciones, de acuerdo a lo que establezcan las correspondientes normas de IRPF y Seguridad Social.

c) Las coberturas de los riesgos de Responsabilidad Civil y Accidentes y la complementaria a esta última de Asistencia en Viaje. La póliza de Responsabilidad Civil deberá cubrir las consecuencias económicas de los daños causados a terceros por el asegurado durante el desarrollo de su beca.

La póliza de Accidentes garantizará las coberturas de Fallecimiento, Incapacidad Permanente Absoluta, Total y Parcial s/baremo, y la póliza de Asistencia en Viaje garantizará el accidente y/o enfermedad (pandemias incluidas) que el asegurado sufre durante su estancia en el país de destino.

El ámbito geográfico de las citadas pólizas deberá extenderse por todo el mundo.

3. – La concesión y disfrute de la beca no generará en ningún caso relación contractual o estatutaria alguna entre la persona becada y la entidad responsable de las becas, Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco o la empresa u organismos en el que se realicen las prácticas.

IV. – Requisitos para acceder a las Becas «Basque Global Industry».

1. – Las personas interesadas en acceder a las becas «Basque Global Industry», deberán reunir y acreditar la concurrencia de los siguientes requisitos:

- a) Estar en posesión de la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea.
- b) Vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco con antigüedad superior a los 12 meses inmediatamente anteriores a la apertura de plazo de presentación de solicitudes, o de 5 años continuados a lo largo de los 10 años inmediatamente anteriores.
- c) Titulación universitaria oficial de grado o titulación de Formación Profesional oficial de Grado Superior. Se admitirán títulos obtenidos en el extranjero siempre y cuando vengán acompañados de la homologación o equivalencia emitida por la autoridad competente.
- d) Adecuarse al perfil requerido por la empresa u organismo en el que se realizarán las prácticas.
- e) No tener cumplidos 30 años a 1 de enero del año 2026.
- f) Independientemente del destino de la práctica, acreditar dominio del inglés, exigiéndose como mínimo el nivel B2 para quienes ostenten Titulaciones universitarias oficiales de grado y el nivel B1 en el caso de la Formación Profesional oficial de Grado Superior.
- g) No padecer enfermedad ni estar afectado o afectada por limitación física o psíquica que impida el normal desarrollo de la beca o patologías que limiten las actividades de la vida cotidiana en el momento de aceptación de la beca.
- h) No haber sido beneficiario o beneficiaria de esta u otras ayudas o becas dirigidas a titulados y tituladas universitarias que tengan un objeto formativo similar y que en su itinerario hayan posibilitado realizar prácticas en el exterior de duración superior o igual a 6 meses en empresas u organismos internacionales. En particular, resulta incompatible para el disfrute de estas becas haber sido beneficiario de becas Basque Global Industry, BEINT, becas del ICEX o de otras Administraciones Autonómicas, de las Cámaras de Comercio, de Organismos de Promoción Comercial de la UE y otros organismos análogos.
- i) No haber trabajado o realizado prácticas en la empresa u organismo en la que se vaya a desarrollar la práctica de Basque Global Industry.
- j) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

k) No podrán concurrir aquellas personas solicitantes que se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o si se hayan incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

l) No podrán obtener la condición de beneficiarias las personas en quienes concurra alguna de las circunstancias establecidas en el artículo 13 de la Ley 20/2023, Reguladora del Régimen de Subvenciones.

2. – La acreditación de los requisitos recogidos en el apartado anterior se efectuará ante la respectiva entidad responsable de las becas del siguiente modo:

a) Documentación acreditativa de la fecha de nacimiento (DNI, partida de nacimiento, o cualquier otro que acredite fehacientemente dicho extremo).

b) Curriculum vitae.

c) Documentación acreditativa de la vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco, acorde con lo especificado en el presente artículo.

d) La titulación oficial bien universitaria o de Formación Profesional oficial de Grado Superior se acreditará mediante alguno de los siguientes documentos:

– El título.

– Resguardo de solicitud del título con documento justificativo de haber abonado los derechos para la expedición del mismo.

– La nota reflejada en el expediente académico indicativa de haber superado la prueba de conjunto de la titulación correspondiente y de haber abonado los derechos para la obtención de la misma.

Los títulos obtenidos en el extranjero deberán venir acompañados de la correspondiente homologación o equivalencia emitida por la autoridad competente.

e) Resultado de la prueba oral y escrita que se practicará para certificar el nivel de inglés de los candidatos. Alternativamente, se podrá certificar presentando títulos y certificados recogidos en el Anexo de la Orden de 16 de junio de 2022, del consejero de Educación, por la que se procede a la segunda actualización del Anexo del Decreto 73/2012, de 15 de mayo, por el que se establecen los requisitos de competencia lingüística para impartir áreas o materias en lenguas extranjeras en la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se reconocen títulos y certificados.

Solo se admitirán aquellos títulos y certificados obtenidos en los 4 años inmediatamente anteriores a la apertura de plazo de presentación de solicitudes.

f) Declaración responsable de:

– No padecer enfermedad ni estar afectado o afectada por limitación física o psíquica que impida el normal desarrollo de la beca o patologías que limiten las actividades de la vida cotidiana en el momento de solicitud de la beca.

– No haber sido beneficiario o beneficiaria de becas similares, de acuerdo con lo establecido en el presente artículo.

– Hallarse al corriente de pago de las obligaciones por reintegro de subvenciones.

– Estar al día en el cumplimiento de obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

3. – La acreditación de la adecuación de la persona candidata al perfil requerido por la empresa u organismo en el que se realizarán las prácticas, se efectuará en la entrevista con el Tribunal de Selección que valorará la misma.

V. – Proceso de selección de las personas candidatas a las Becas «Basque Global Industry».

1. – La presentación de solicitud de beca supone la aceptación de lo dispuesto en las presentes bases.

2. – Cada persona candidata a las becas únicamente podrá presentar una solicitud ante una entidad adscrita al Programa y beneficiaria del mismo.

Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), entidad colaboradora del programa, velará por el cumplimiento de esta condición quedando excluidas del proceso de selección las candidaturas que presenten solicitudes ante dos o más entidades.

3. – La selección la realizará cada entidad responsable de las becas sobre la base del proceso que se describe a continuación:

a) Convocatoria pública del respectivo programa de becas, que recogerá el número de becas que se propone cubrir, perfil de cada beca y destino, y contemplará un plazo mínimo de un mes a contar desde el primer anuncio que se efectúe, para la formalización de las solicitudes y aportación de la documentación acreditativa relacionada en apartado IV anterior.

b) Verificación de que la documentación aportada está completa y, en caso contrario, requerir a las personas interesadas para que lo hagan en un plazo máximo de diez días.

c) Análisis de Currículum Vitae y valoración de la titulación, formación complementaria y experiencias o prácticas conforme a los criterios generales de igualdad, mérito y capacidad.

d) Prueba de inglés para los candidatos y candidatas que no hayan acreditado estar en posesión de titulación oficial requerida en el apartado IV.2.e).

e) Entrevista individual con el Tribunal de Selección que valorará la adecuación del perfil de la persona candidata al solicitado por la empresa u organismo extranjero en el que se realizaran las prácticas.

f) Cada Tribunal de Selección estará formado por al menos dos miembros de la entidad convocante de las Becas. Cuando se trate de entidades que participen en el programa en cooperación, será necesario que en cada entrevista haya representantes de al menos dos de las entidades cooperantes. Adicionalmente podrá estar presente un representante de Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), sociedad filial de SPRI.

4. – Finalizado el proceso de selección la entidad convocante emitirá el correspondiente documento de concesión de la beca, en el que se establecerá el país de destino y empresa u organismo en el que se realizaran las prácticas, fecha y duración de las mismas, dotación de la beca, las tareas a realizar y cuantos temas se consideren relevantes para el buen funcionamiento de la estancia práctica.

5. – El documento de concesión de la beca será notificado a las personas seleccionadas. Cada entidad responsable de becas publicará la relación global de los participantes en el proceso indicando si han sido o no seleccionados.

6. – Modificación de las condiciones de la beca asignada.

a) La beca concedida a los becarios y becarias estará supeditada a la obtención de los correspondientes visados o permisos requeridos por cada país. Si se constatare la imposibilidad de obtener dichos visados o permisos por causa no imputable al becario o becaria, la entidad responsable de dicha beca podrá ofrecer al becario o becaria realizar la práctica en otro destino.

b) En los casos en que las condiciones del desempeño de la beca queden amenazadas por causa imputable, o que afecte, a la entidad responsable de la beca, empresa u organismo, o por grave alteración o amenaza de la seguridad en el lugar de destino, Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización) y/o SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial podrán ordenar a las entidades responsables de las becas que realicen un cambio de destino permanente o temporal de las personas becadas afectadas. Excepcionalmente, el nuevo destino asignado a la persona becada podrá estar ubicado en Euskadi, existiendo también la posibilidad de desarrollar las tareas en la modalidad de teletrabajo.

c) En los casos extraordinarios en los que se constatare la imposibilidad de asignar un nuevo destino a las personas becadas que se encuentren en las situaciones descritas en los apartados anteriores y tampoco sea posible llevar a cabo las tareas mediante la modalidad de teletrabajo, las entidades responsables de las becas, de común acuerdo con Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización) y SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, podrán cancelar las becas antes de la fecha establecida para su finalización.

d) En los casos en los que, por razones de fuerza mayor, los becarios o becarias deban regresar a Euskadi de forma temporal o definitiva, será necesario comunicar las causas con carácter previo a la entidad responsable de la beca, justificándolas debidamente. La entidad responsable de la beca trasladará a su vez su valoración de la situación a Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), que una vez comprobadas y validadas las causas que las motivan, eventualmente otorgará el visto bueno expreso. Hasta la reincorporación y de forma excepcional, las tareas de desempeño de la beca podrán llevarse a cabo en la modalidad de teletrabajo.

VI. – Obligaciones de la persona beneficiaria de una Beca «Basque Global Industry».

Las personas beneficiarias de una beca del programa «Basque Global Industry» adquieren las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la beca concedida. En este sentido, si en el plazo de 5 días hábiles desde la fecha de notificación de concesión de la beca, no firma el documento de concesión, se entenderá que renuncia.

b) Asistir al curso de formación previo al inicio de las prácticas en el país de destino y mantener una actitud cooperativa con los docentes y los compañeros en todo momento.

c) Respetar las medidas sanitarias establecidas por las entidades, empresas y organismos colaboradores durante toda la beca.

d) Obtener el correspondiente visado, vacunaciones, permisos o autorizaciones exigidos por el país de destino antes de viajar al mismo.

e) Aceptar y cumplir las instrucciones en cuanto a plazos de incorporación y fin de las empresas y organismos colaboradores de destino, o cualquier otra destinada al buen cumplimiento de los objetivos de la beca. Mientras dure la práctica, el horario y calendario de la persona becada se ajustará al de la empresa u organismo colaborador, estableciéndose un máximo de 40 horas por semana.

f) Dedicación exclusiva a las actividades propias de la beca, no ejerciendo ninguna otra actividad remunerada y acatando las normas de funcionamiento de las entidades, empresas y organismos colaboradores mientras dure la beca.

g) Realizar las tareas que le sean encomendadas por la empresa u organismo en el que realiza las prácticas en el marco del plan de trabajo previamente establecido o acordado.

h) Realizar y enviar informes trimestrales sobre el desarrollo de las prácticas, así como la información que le requiera la entidad responsable de la beca.

i) Registrarse a su llegada al país de destino en el consulado o embajada a efectos de fijar su residencia durante el período de la beca.

j) Participar en las evaluaciones del trabajo realizado que la entidad responsable de la beca establezca, en las que pudiera tomar parte un representante de Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización), sociedad filial de SPRI.

k) Reintegrar, en caso de pérdida de la condición de becario o becaria las cuantías que hubiera percibido en exceso. Para el cálculo de la cantidad objeto de reintegro se determinará la relación proporcional existente entre el plazo de duración previsto para la estancia práctica becada y la dotación económica asignada para la cobertura de la misma, y si la cuantía percibida fuese superior a la correspondiente al periodo de estancia realizado deberá devolverse a la entidad responsable de la beca el exceso percibido.

l) Comunicar, siguiendo las directrices marcadas desde las entidades responsables de las becas, los viajes a países extranjeros distintos al de residencia que se realicen tanto por motivos relacionados con la práctica, como por motivos personales, para proceder a la actualización de la póliza de seguro, garantizando así la cobertura. Cuando desde Basque Trade & Investment (Agencia Vasca de Internacionalización) y/o SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial se constate la existencia de peligrosidad en un determinado país o región, se podrá limitar la movilidad internacional de los becarios y becarias.

m) Facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

n) Cumplir las demás obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley 20/2023, Reguladora del Régimen de Subvenciones y en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

o) Notificar a la entidad responsable de la beca cualquier incidencia que afecte a la consecución del buen fin de la beca.

p) Comunicar a la entidad responsable de la beca cualquier baja médica u otra circunstancia que le impida desarrollar sus tareas con normalidad.

VII. – Obligaciones de las entidades responsables de las becas en relación con las personas becadas.

Las entidades responsables de becas del programa de Becas «Basque Global Industry», se responsabilizan de la plena satisfacción de los beneficios expresados en el apartado III anterior, y en tal sentido están obligadas a:

- a) Facilitar a la persona becaria la formación previa a la estancia práctica.
- b) Formalizar los acuerdos específicos de colaboración con las empresas u organismos donde se van a desarrollar las prácticas en el extranjero en los que se establezcan las condiciones materiales y técnicas necesarias para el desarrollo de la práctica por la persona becaria, como son el lugar de realización de la práctica, duración de la misma, plan de trabajo consensuado y cuantas cuestiones se consideren fundamentales.
- c) Contratar la póliza de seguros que cubra a la persona becaria de los riesgos de enfermedad y accidente, así como de los gastos de repatriación y responsabilidad civil frente a terceros.
- d) Abonar la dotación económica de la beca conforme al siguiente régimen de libramientos:
 - 1.– Un primer pago por importe equivalente al 50 % de la dotación económica de la beca concedida antes del inicio de la estancia práctica.
 - 2.– Un segundo pago por importe equivalente al 40 % de la dotación económica de la beca en el mes en que se cumpla la mitad de la duración de la estancia práctica.
 - 3.– Un tercer y último pago por la cantidad restante tras la finalización de la estancia práctica, previa recepción de sendos informes sobre el balance final de la estancia, presentados por la persona becada y por la empresa u organismo receptor de la misma.
 - 4.– Impartir la formación obligatoria antes de que los becarios y becarias inicien sus prácticas. Las fechas y horas de la formación, tendrán que comunicarse a los becarios con al menos 15 días naturales de antelación.

VIII. – Pérdida de la condición de becario o becaria.

La condición de becario o becaria podrá extinguirse, además de por la finalización del programa de la beca o por la pérdida de la condición de beneficiaria de la entidad responsable de las becas, por alguna de las siguientes causas:

- a) Renuncia del becario o becaria.
- b) Incumplimiento de las obligaciones descritas en el artículo VI.
- c) Cancelación de la beca en el supuesto de cumplirse lo indicado en el artículo V, apartado 6, letra c).
- d) Que la entidad, empresa u organismo colaborador den por finalizadas anticipadamente las prácticas por causa imputable al becario o becaria. Si la empresa u organismo colaborador diesen por finalizadas anticipadamente las prácticas por causa no imputable a la persona becada, la entidad beneficiaria tendrá el plazo de un mes para intentar encontrar otra empresa u organismo de replazo. Finalizado este plazo, si no se hubiese encontrado una alternativa, se perdería la condición de becario o becaria.

e) Faltar sin justificación a más de dos clases o actividades durante el curso de formación obligatorio previo al inicio de las prácticas en el país de destino o faltar sin justificación al evento de reconocimiento a los becarios y becarias que pudiese organizarse. Se considerará falta tanto la inasistencia como la imposibilidad de acceder al aula o evento derivada de falta de puntualidad.

f) No acatar los cambios de destino realizados en virtud del artículo V, apartado 6.

g) No acatar las restricciones a la movilidad dictadas en virtud del artículo VI I).

h) La concurrencia de cualquiera de los supuestos contemplados en la LRRS y restante normativa de aplicación.

«BASQUE GLOBAL INDUSTRY» PROGRAMAREN OINARRIAK

I. – Helburua.

«Basque Global Industry» 2026 beka-programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna bultzatzea, gazte horiek atzerrian beren ikasketa- eta lanbide-profilarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egin ditzaten, aldeztu aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan baten barruan.

Horretarako, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Basque Trade & Investment-ekin (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) lankidetzan, programa kudeatzeko hautatutako erakundeei dagozkien laguntza ekonomikoak emango dizkie, I. eranskin honetan eta Programaren Oinarrietan ezarritakoaren arabera.

II. – «Basque Global Industry» beken edukia».

1. – Programako erakunde onuradunek ematen dituzten bekek honako hauek barne hartuko dituzte:
 - a) 40 eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-ikastaro bat, bekadun guztiek nahitaez egin beharrekoa. Gutxienezko edukia deialdi honen oinarrietan zehazten da, eta beken erakunde arduradunak —laguntza-programaren onuradunak— emango du praktikak hasi aurretik.
 - b) Gutxienez 6 hilabeteko eta gehienez 12 hilabeteko praktika-egonaldia atzerrian, enpresa edo organismo kolaboratzaile batean. Praktikaldian, bekadunek nahitaez aurrez aurre beteko dituzte beren eginkizunak, eta une oro enpresako langile batek aurrez aurre lagunduta egon beharko dute.
2. – Bekadun izaera dagokion erakunde arduradunak beka emateko agiria igortzen duenean eskuratuko da..

III. – «Basque Global Industry» beken onurak eta mugak.

1. – Novia Salcedo Fundazioak guztira 57 beka eskainiko ditu.
2. – Programaren esparruan beka jasotzen dutenek onura hauek izango dituzte:
 - a) 40 eta 60 ordu bitarteko doako prestakuntza-ikastaro bat, praktikak hasi aurretik. Beken erakunde arduradunak antolatu eta ordainduko du, eta bekadunak nahitaez parte hartu beharko du; bestela, emandako beka galduko du.
 - b) Hileko 1.785 euroko zuzkidura ekonomiko gordina, helmugako herrialdera joateko, mantenurako eta ostaturako gastuak ordaintzeko, bai eta, beharrezkoak izanez gero, bisatu, baimen eta txertoen gastuak ere. PFEZaren eta Gizarte Segurantzaren arauak ezarritakoaren arabera, dagozkien atxikipenak egingo zaizkie aipatutako zuzkidura gordinari eta horri dagozkion ordainketei, hala badagokio.
 - c) Erantzukizun zibileko eta istripu-arriskuen estaldurak, eta azken horren osagarri den bidaia-laguntzako estaldura. Erantzukizun zibileko polizak aseguruak beka garatzen ari den bitartean hirugarrenei eragindako kalteen ondorio ekonomikoak estali beharko ditu.

Istripu-polizak heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, osoa eta partziala —baremoaren arabera— estaliko ditu; bidaia-laguntzako polizak, berriz, aseguruak helmugako herrialdean dagoen bitartean izan ditzakeen istripuak eta/edo gaixotasunak —pandemiak barne— estaliko ditu.

Poliza horien eremu geografikoak mundu osoa hartu beharko du.

3. – Beka emateak eta hartaz baliatzeak ez du inolako kontratu- edo estatutu-harremanik sortuko bekadunaren eta beken erakunde arduradunaren, Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo praktikak egiten diren enpresa edo organismoen artean.

IV. – Basque Global Industry» beka eskuratzeko baldintzak.

1. – «Basque Global Industry» beka eskuratu nahi dituztenek baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-auzotasuna izatea, eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 12 hilabete baino gehiagoko antzintasunarekin, edo epea ireki aurreko 10 urteetan etenik gabe 5 urtez administrazio-auzotasuna izan izana.

c) Graduak unibertsitate-titulu ofiziala edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulu ofiziala izatea. Atzerrian lortutako tituluak onartuko dira, baldin eta agintaritza eskudunak emandako homologazioarekin edo baliokidetzarekin batera aurkezten badira.

d) Praktikak egingo diren enpresak edo organismoak eskatutako profilerak egokitzea.

e) 2026ko urtarrilaren 1ean 30 urte bete gabe izatea.

f) Praktiken helmuga edozein dela ere, ingelesa menderatzen dela egiaztatzea. Graduak unibertsitate-titulu ofiziala dutenentzat gutxienez B2 maila eskatuko da, eta goi-mailako Lanbide Heziketako titulu ofiziala dutenentzat B1 maila.

g) Beka onartzeko unean ez izatea beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik, ez eta eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik ere.

h) Ez izatea beka hauen edo prestakuntza-helburu antzekoa duten eta unibertsitate-tituludunei zuzenduta dauden beste laguntza edo beka batzuen onuradun, baldin eta horien ibilbidearen barruan nazioarteko enpresa edo organismoetan atzerrian 6 hilabete edo gehiagoko praktikak egiteko aukera izan bada. Zehazki, beka hauek baliatzeko bateraezina da Basque Global Industry, BEINT eta ICEX beken edo beste administrazio autonomiko, merkataritza-ganbera, EBko merkataritza sustatzeko organismo eta antzeko beste organismo batzuen beken onuradun izana.

i) Basque Global Industry praktikaldia egingo den enpresan edo organismoan aurretik lanik edo praktikarik egin ez izana.

j) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

k) Ezin izango dute parte hartu dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiboa jaso duten eskatzaileek, ez eta horretarako legeko debekuren bat dutenek ere; sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

l) Ezin izango dute onuradun izaera eskuratu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden pertsonak.

2.– Aurreko apartatuan jasotako baldintzak honela egiaztatuko dira dagokion beken erakunde arduradunaren aurrean:

a) Jaiotza-data egiaztatzeko dokumentazioa (NANa, jaiotza-agiria edo datu hori modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein agiri).

b) Curriculum vitae.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-auzotasuna egiaztatzeko dokumentazioa, artikulua honetan zehaztutakoarekin bat etorritik.

d) Unibertsitateko titulazio ofiziala edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulazio ofiziala dokumentu hauetakoren baten bidez egiaztatuko:

– Titulua.

– Titulu-eskaeraren gordekina, titulua emateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentuarekin batera.

– Ikasketa-espeditentean jasotako oharra, dagokion titulazioaren proba orokorra gainditu dela eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu direla adierazten duena.

Atzerrian lortutako tituluak agintaritza eskudunak emandako homologazioarekin edo baliokidetzarekin batera aurkeztu beharko dira.

e) Hautagaien ingeles-maila egiaztatzeko egingo den ahozko eta idatzizko probaren emaitza. Bestela, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren eranskinean jasotako titulu eta ziurtagiriak aurkeztuta egiaztatu ahal izango da; agindu horren bidez bigarren aldiz eguneratzen da maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen baititu eta titulu eta ziurtagiriak onartzen baititu.

Eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 4 urteetan lortutako titulu eta ziurtagiriak baino ez dira onartuko.

f) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituen:

– Ez duela beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik, ez eta beka eskatzeko unean eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik ere.

- Ez dela antzeko beken onuradun izan, artikulua honetan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean dituela.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

3.– Hautagaia praktikak egingo diren enpresak edo organismoak eskatutako profilerak egokitzen dela Hautaketa Epaimahaiarekin egingo den elkarrizketan egiaztatuko da; epaimahaiak baloratuko du egokitasun hori.

V.– «Basque Global Industry» bekatarako hautagaiak aukeratzeko prozesua.

- 1.– Beka-eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa onartzea.
- 2.– Hautagai bakoitzak eskaera bakarrik aurkeztu ahal izango du Programari atxikitako eta haren onuradun den erakunde batean.

Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), programaren erakunde kolaboratzailea den aldetik, baldintza hori betetzen dela zainduko du; bi erakundetan edo gehiagotan eskaera aurkezten duten hautagaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

3.– Beken erakunde arduradun bakoitzak egingo du hautaketa, jarraian azaltzen den prozesuaren arabera:

a) Dagokion beka-programaren deialdi publikoa egitea. Deialdian adieraziko dira bete nahi diren beken kopurua, beka bakoitzaren profila eta helmuga, eta gutxienez hilabeteko epea ezarriko da lehen iragarkia egiten denetik eskaerak formalizatzeko eta aurreko IV. apartatuan aipatutako egiaztagiria aurkezteko.

b) Aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatzea eta, hala ez bada, interesdunei gehienez hamar eguneko epean osatzea eskatzea.

c) Curriculum vitae aztertzea eta titulazioa, prestakuntza osagarria eta esperientziak edo praktikak baloratzea, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-irizpide orokorren arabera.

d) IV.2.e) apartatuan eskatutako titulazio ofiziala dutela egiaztatu ez duten hautagaiei ingeleseko proba egitea.

e) Hautaketa Epaimahaiarekin banakako elkarrizketa egitea; bertan baloratuko da hautagaiaren profila praktikak egingo diren atzerriko enpresak edo organismoak eskatutako profilerak egokitzen diren.

f) Hautaketa Epaimahai bakoitza beka-deialdia egin duen erakundeko gutxienez bi kidek osatuko dute. Programan lankidetzan parte hartzen duten erakundeen kasuan, elkarrizketa bakoitzean lankidetzan ari diren gutxienez bi erakundetako ordezkariak egon beharko dira. Horrez gain, SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) ordezkari bat egon ahal izango da.

4.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, deialdia egin duen erakundeak beka emateko agiria igorriko du. Agiri horretan zehaztuko dira helmugako herrialdea, praktikak egingo diren enpresa edo organismoa, praktiken data eta iraupena, bekaren zuzkidura, egin beharreko zereginak eta praktika-egonaldia behar bezala garatzeko garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdi.

5. – Beka emateko agiria hautatutako pertsoneri jakinaraziko zaie. Beken erakunde arduradun bakoitzak prozesuan parte hartu duten pertsona guztien zerrenda argitaratuko du, hautatuak izan diren ala ez adierazita.

6. – Esleitutako bekaren baldintzak aldatzea.

a) Bekadunei emandako beka herrialde bakoitzak eskatzen dituen bisatu edo baimenak lortzearen mende egongo da. Bekadunari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik bisatu edo baimen horiek lortzea ezinezkoa dela egiaztatzen bada, beka horren erakunde arduradunak praktikak beste helmuga batean egitea eskaini ahal izango dio.

b) Beka garatzeko baldintzak arriskuan badaude beken erakunde arduradunari, enpresari edo organismoari egotz dakiokeen edo haiei eragiten dien arrazoi batengatik, edo helmugako tokiaren segurtasuna larriki aldatu delako edo mehatxupean dagoelako, Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak beken erakunde arduradunari agindu ahal izango diete eragindako bekadunen helmuga aldi baterako edo behin betiko aldatzeko. Salbuespen gisa, bekadunari esleitutako helmuga berria Euskadin egon ahal izango da, eta zereginak telelanaren modalitatean egiteko aukera ere egongo da.

c) Aurreko apartatuetan deskribatutako egoeretan dauden bekaduneri helmuga berririk esleitzea ezinezkoa dela egiaztatzen den eta zereginak telelanaren modalitatean egitea ere ezinezkoa den ezohiko kasuetan, beken erakunde arduradunek, Basque Trade & Investment-ekin (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziarekin ados jarrita, bekak amaitzeko ezarritako data baino lehen bertan behera utzi ahal izango dituzte.

d) Ezinbesteko arrazoiengatik bekadunek Euskadira aldi baterako edo behin betiko itzuli behar duten kasuetan, arrazoiak aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkio beken erakunde arduradunari, behar bezala justifikatuta. Beken erakunde arduradunak egoeraren gaineko balorazioa helaraziko dio Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia); arrazoiak egiaztatu eta baliozkotu ondoren, hala badagokio, berariazko oniritzia emango du. Bekaduna berriro lanean hasi arte, eta salbuespen gisa, bekari dagozkion zereginak telelanaren modalitatean egin ahal izango dira.

VI. – «Basque Global Industry» beka baten onuradunaren betebeharrak.

«Basque Global Industry» programako beka baten onuradunek betebeharrak hauek hartzen dituzte beren gain:

a) Emandako beka onartzea. Horretarako, beka emateko jakinarazpena egin den egunetik 5 egun balioduneko epean beka emateko agiria sinatzen ez badu, uko egin diola ulertuko da.

b) Helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko prestakuntza-ikastarora joatea, eta une oro lankidetzajarrera izatea irakasleekin eta ikaskideekin.

c) Erakunde, enpresa eta organismo kolaboratzaileek ezarritako osasun-neurriak errespetatzea bekak dirauen bitartean.

d) Helmugako herrialdeak eskatzen dituen bisatua, txertoak, baimenak edo autorizazioak hara joan aurretik lortzea.

e) Helmugako enpresa eta organismo kolaboratzaileetan lanean hasteko eta amaitzeko epeei buruzko jarraibideak eta bekaren helburuak behar bezala betetzera bideratutako gainerako jarraibideak onartu eta betetzea. Praktikaldiak dirauen bitartean, bekadunaren ordutegia eta egutegia enpresa edo organismo kolaboratzailearen arabera izango dira, eta gehienez 40 ordu egingo dira astean.

f) Arduraldi eskusiboa izatea bekaren berezko jardueretarako, bestelako jardura ordaindurik egin gabe, eta bekak dirauen bitartean erakunde, enpresa eta organismo kolaboratzaileen funtzionamendu-arauak betetzea.

g) Praktikak egiten dituen enpresak edo organismoak agintzen dizkion zereginak egitea, aldezturik ezarri edo adostutako lan-planaren esparruan.

h) Praktiken garapenari buruzko hiruhileko txostenak egitea eta bidaltzea, bai eta beken erakunde arduraldiak eskatzen dion informazioa ere.

i) Helmugako herrialdera iritsitakoan kontsul-etxean edo enbaxadan erregistratzea, beka-aldian izango duen bizilekua finkatzeko.

j) Beken erakunde arduraldiak ezartzen dituen lan-ebaluazioetan parte hartzea; SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du ebaluazio horietan.

k) Bekadun izaera galduz gero, soberan jasotako zenbatekoak itzultzea. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, praktikaldirako aurreikusitako iraupenaren eta hura estaltzeko esleitutako zuzkidura ekonomikoaren arteko proportzioa zehaztuko da; jasotako zenbatekoa egindako egonaldiari dagokiona baino handiagoa bada, soberan jasotakoa beken erakunde arduraldiari itzuli beharko zaio.

l) Beken erakunde arduraldiak ezarritako jarraibideei jarraituz, bizilekutzat duen herrialdea ez den beste herrialde batzuetara praktikarekin lotutako arazoengatik zein arazoi pertsonalengatik egiten dituen bidaiak jakinaraztea, aseguru-poliza eguneratu eta estaldura bermatzeko. Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak herrialde edo eskualde jakin bat arriskutsua dela egiaztatzen badute, bekadunen nazioarteko mugikortasuna mugatu ahal izango da.

m) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzen erabilera fiskalizatzeko eginkizunak betetzean, eskatzen dioten informazio guztia ematea.

n) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.

o) Bekaren helburua behar bezala betetzeari eragiten dion edozein gorabehera beken erakunde arduraldiari jakinaraztea.

p) Bere zereginak normaltasunez egitea eragozten dion edozein mediku-baja edo bestelako egoera beken erakunde arduraldiari jakinaraztea.

VII. – Beken erakunde arduradunek bekadunekiko dituzten betebeharrak.

«Basque Global Industry» beka-programako beken erakunde arduradunek aurreko III. apartatuan azaldutako onurak erabat bermatzeko ardura dute, eta, horrenbestez, betebeharrak hauek dituzte:

a) Bekadunari prestakuntza ematea praktika-egonaldia hasi aurretik.

b) Atzerrian praktikak egingo diren enprekin edo organismoekin lankidetzak hitzarmen espezifikoak formalizatzea. Hitzarmen horietan ezarriko dira bekadunak praktikak garatzeko behar dituen baldintza material eta teknikoak, hala nola praktikak egiteko tokia, iraupena, adostutako lan-plana eta funtsezko zat jotzen den beste edozein alderdi.

c) Bekadunari gaixotasun- eta istripu-arriskuak, aberriratze-gastuak eta hirugarrenen erantzukizun zibila estaliko dizkion aseguru-poliza kontratatzea.

d) Bekaren zuzkidura ekonomikoa ordainketa-araubide honen arabera ordaintzea:

1.– Lehen ordainketa, emandako bekaren zuzkidura ekonomikoaren % 50koa, praktika-egonaldia hasi aurretik.

2.– Bigarren ordainketa, bekaren zuzkidura ekonomikoaren % 40koa, praktika-egonaldiaren iraupenaren erdia betetzen den hilean.

3.– Hirugarren eta azken ordainketa, geratzen den zenbatekoa, praktika-egonaldia amaitu ondoren; aurretik, bekadunak eta hura hartu duen enpresak edo organismoak egonaldiaren azken balantzeari buruz aurkeztutako txosten bana jaso beharko dira.

4.– Bekadunei praktikak hasi aurretik nahitaezko prestakuntza ematea. Prestakuntzaren egunak eta orduak gutxienez 15 egun natural lehenago jakinarazi beharko zaizkie bekadunei.

VIII. – Bekadun izaera galtzea.

Bekadun izaera azkendu ahal izango da, beka-programa amaitzeaz edo beken erakunde arduradunak onuradun izaera galtzeaz gain, arrazoi hauetakoren batengatik:

a) Bekadunak uko egitea.

b) VI. artikuluan deskribatutako betebeharrak ez betetzea.

c) V. artikuluko 6. apartatuko c) letran adierazitako kasuan beka bertan behera uztea.

d) Erakunde, enpresa edo organismo kolaboratzaileak praktikak aurretiaz amaitutzat ematea bekadunari egotz dakiokeen arrazoi batengatik. Enpresak edo organismo kolaboratzaileak praktikak bekadunari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik amaitzen baditu aurretiaz, erakunde onuradunak hilabeteko epea izango du ordeztu beste enpresa edo organismo bat bilatzen saiatzeko. Epe hori amaituta alternatibarik aurkitu ez bada, bekadun izaera galduko da.

e) Helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko nahitaezko prestakuntza-ikastaroan bi klase edo jarduera baino gehiagotara justifikaziorik gabe ez joatea, edo antola daitekeen bekadunei aitortza egiteko ekitaldira justifikaziorik gabe ez joatea. Ez joatea ez ezik, puntualtasun faltagatik ikasgelara edo ekitaldira sartu ezin izatea ere hutsegitezat joko da.

f) V. artikuluko 6. apartatuaren arabera egindako helmuga-aldaketak ez onartzea.

g) VI. artikuluko l) letraren arabera ezarritako mugikortasun-murrizketak ez onartzea.

h) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako edozein egoera gertatzea.